

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2012ko otsailaren 9a. IX. urtea. 2.357. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Nerea Lizarraga Zizurkilgo alkateordea

«Ez dugu adingabeen zentroa ixteko eskatzen, hauek beharrezkoak baitira»

Azken asteetan hika-mika piztu da Zizurkilgo adingabeen zentroko gazteek bizilagunei sortutako eragozpenak direla eta; udala bizilagunei laguntzeko prest dagoela azaldu du

Zentroaren ardura Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta udalak bitartekari lana egingo duela esan du alkateordeak; zaintzaileak bertan 24 orduz daudela gaineratu du **06**



Nerea Lizarragak azaldu duenez, Zizurkilgo Udala bizilagunei laguntzeko prest dago. A. IMAZ

Tolosako Aiz-Orratz elkartearen haur jaialdia izango da etzi

Leidor aretoan izango da, urtero bezala, baina aurten sarrerek euro bateko prezioa dute **02**

Mozorrotzeko unea iritsi zaie lizartzarrei eta berastegiarrei

Lizartzan jarraipena emango diote inauteriei, eta Berastegin jaiak berreskuratuko dituzte **07**

Tolosako Arriarango biribilgunea egitea eskatu dute

EAJk, PSE-EEK eta Bilduk proposamena onartu dute Batzar Nagusietan **03**

Eragin zabala izango du sektore publikoko lanuzteak gurean

Udal askotan eta hainbat ikastetxetan bat egingo dute sindikatuen arabera **07**

Prezio oso bereziak

Galtzerdiak 1€ eta 2€

Poloak 11€

Errementari Kalea, z/g
TOLOSA • Tel.: 943 67 16 30

NEREA
1962
LENTZERIA

 **Gutuna**

Manipulados del Araxesen: Kaleratzerik ez! ERErik ez!

Beharrezkoa da krisian dauden eskualdeko lantoki guztiak, gehiagora egingo duen mobilizazio egutegi batean elkartzea!

Lizartzako Manipulados del Araxesek lan asko eta irabazi handiak izan ditu aurreko urteetan, baina irabazi horiek ez ziren bertako langileon artean banatu. Baina krisia hasi ondoren, urtebete eta hiru hilabete iraun duen lan erregulazio txostena ezarri ziguten langileoi. Orain, berriz, 14 langiletik 5 kaleratzea eta gainontzeko langileek lan erregulazio txostenean jarraitzea nahi du enpresak.

Lanpostu guztiak mantentzea eta langileen lan baldintzak bermatzeko eskatzen diogu Manipulados del Araxes enpresari. Zuzendaritzak bideragarritasun arazoak dituela argudiatzen du. Horregatik, liburu konfentziak eskatzen diogu.

Enpresak esaten duena egia bada, administrazio erakundeei langileen kontrolpeko enpresaren nazionalizazioa eskatzen diegu. Gutxiengo baten onerako bankuak salbatzeko erabiltzen duten diru publikoa, lanpostuak salbatzeko erabili behar dela uste dugulako.

Lan erregulazio txostenek, kaleratzeek eta enpresa itxieriek jarraitu egiten dute Euskal Herrian.

Mundu osoan gertatzen ari den egoera hau, agerian uzten ari da kapitalismoa ez dela gai sistema bezala paper aurrerakoi bat jokatzeko gizaratean. Eta are gutxiago, lanpostuak mantentzeko edo sortzeko eta gizarate osoarentzat bizimodu duin bat bermatzeko. Errealitate benetan gogorra ikusten ari gara, eta Tolosaldea ere ez da libratzen.

Manipulados del Araxes bezala, beste enpresa asko daude eskualdean horrelako arazoenekin. Tolosaldean, langileok ezin diegu uko egin iraganean hainbeste esfortzuekin eskuratuta-

ko konkistei. Noski, patronalak eta enpresariak beren irabaziak mantentzearen ahal dituzten neurri guztiak ezartzen jarraituko dute, eta fabrika bakoitzean langileak engainatzen, desmoralizatzen eta zatikatzen saiatuko dira.

Dudarik gabe, edozein borrokatan, lankideen batasuna, batzarrak eta eztabaida demokratikoa langileen garaipenerako gakoa dira, baina funtsezkoa da borrokak elkartzea eta orokortzea ere.

Manipulados del Araxeseko langileen aliatu nagusiak Tolosaldeko gainontzeko langileak zarete. Manipuladosko langileen borroka indartzeko modu onena, arazoak dituzten enpresetako langileekin borroka plan bateratu bat antolatzea da. Beharrezkoa da Manipuladosko borroka, orain kaleratze, lan erregulazio txostena edo itxiera mehatxuekin dauden enpresekin uztartzea.

Enpresetako eraso guztiei aurre egiteko modu onena, gatazkan dauden edo arazoak dituzten enpresetako borrokak koordinatzea eta bateratzea da. Oso zaila da lanpostuak enpresaz enpresa defendatzea.

Araoz berdinaren aurrean, langileen indarra biderkatu egiten da mobilizazio bateratu eta koordinatuekin. Hau da bidea, langile klasearen borroka antolatu eta koordinatua. Batasuna da Tolosaldeko langileen eta beren familien aurka antolatzen ari diren eraso guztiak atzera botatzeko modu onena. Horregatik beharrezkoa da krisian dauden eskualdeko lantoki guztiak gehiagora joango den mobilizazio egutegi batean elkartzea.

Era berean, dei egiten diegu sindikatu, ezkerreko erakunde eta langile guztiei, oro har, Tolosaldean antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzeko.

■ **Manu Odriozola.**

Manipulados Araxes lantokiko langilea eta Euskal Herria Sozialistako kidea.



Mozorro lehiaketako sariak ere haur jaialdian banatuko dituzte. | T.FERRADILLOS

Aiz-Orratzen haur jaialdia izango da etzi, gaztetxoei inauteri grina kutsatzeko

Leidor aretoko ikusle kopurua neurtze aldera, aurten euro bateko prezio simbolikoa izango dute sarrerek

Itzea Urkizu

Tolosako haur eta gaztetxoei inauterietako zaletasuna kutsatzeko helburuz sortu zen, beste urtez bezelako egunetan Aiz Orratz-Veleta elkarteak antolatuko duen haur jaialdia: «Egitara haur hiritar guztiak eta adin guztietako jendearentzat egiten dute inauterietan, baina gure jaialdian haurrei ematen diegu protagonismoa, txikitatik inauteri giroa ezagutzeko helburuz», dio antolatzaileetako batek.

Etzi, 16:00etan txaranga elkartetik irtengo da, eta ordu erdi beranduago hasiko da haur jaialdia, Leidorren; Aiz Orratz-Veleta elkarteok ikusleak txantxoz jantzita joateko deialdia zabaldu dute. Lierni Karrerak eta Joseba Usabiagak aurkeztuko duten ikuskizunean, Xuridin, Jonmagic nahiz marrazki eta mozzorro lehiaketa izango dira, besteak beste.

Mozorro eta marrazkien lehia
Haur jaialdiko ikuskizunaz gain, marrazki eta mozzorro lehiaketa izaten dira Kaldereroen Egune-

an. Aiz Orratz-Veleta elkarteak, Tolosako eta inguruko herrietako ikasleen marrazkiak jasotzen dituzte; guztira, 2.400 marrazki inguru. Epaimahaiari dagokionez, Tolosako ikastetxeetako irakasleak aritzen dira marrazkiak aurkeztuz: «Elkarteko kideok antolatu dituzten dagozkion gauzak besterik ez ditugu egiten: kartelak erakutsi, apuntatu, eta abar».

Mozorro lehiaketako parte hartzaileak, berriz, haur jaialdiaren aurretik mozzorrotuta joaten dira epaimahaiaren aurrera, eta jaialdian bertan jakinaratzen zaie epaia. Horrela beraz, larunbatan 15:00etan Harizpe jubilatuko elkartean izango dute hitzordua. Kasu honetan, epaimahaiko kideak inauteri jantziak eta antzekoak egiten eskarmentu handia duten jostunak izaten direla azaldu dute antolatzaileek.

Larunbateko mozzorro lehiaketan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoek, Aiz Orratz-Veleta elkartearen izena eman dezakete, egunero, 18:00etatik 20:00etara bitarte.

Sarreraren prezio simbolikoa

Aurten, lehenengoz, haur jaialdia ikusteko sarrera ordaindu egin beharko dute herritarrek, prezio simboliko batekin.

Leidor aretoa eraberritu zuten arte, Tolosako Beotibar pilotalekuan izaten zen Aiz Orratz-Veleta elkartearen inauterietako haur

jaialdia. Orain, ordea, Leidor aretoan ospatzen dute festa. Antolatzaileek azaldu dutenez, azken urteotan aretoko eserleku kopurua baino ikusle gehiago izaten ziren, eta hori arazo bihurtu zaie elkarretokoei: «Eusko Jaurlaritzak ikusle kopuruaren muga kontrolatzeko eskatzen du horrelako jardueretan, bestela ezin baita ikuskizuna egin. Hau dela eta, gonbidapenen sistema erabiltzea erabaki genuen; izan ere, guk beti pentsatu izan dugu haur jaialdia dohainik ikusi beharrezkoa dela. Gonbidapenekin, ordea, zera gertatzen da, jendeak behar baino sarrera gehiago hartzen dituela, eta gero eserlekuak ez direla betetzen, beste herritar batzuk sarrearik gabe kanpoan geratzen diren bitartean».

Honen aurrean, elkarteak euro bateko prezioan sarrerak saltzea erabaki du. Alde batetik, herritarrek behar dituzten sarrerak bakarrik erostea nahi dute, eta bestetik, sarrerari nolabaiteko balioa ematea. Antolatzaileek argi utzi nahi izan dute Aiz Orratz-Veleta eta udalak ez dutela sarreren dirurik jasoko; jaialdiko goxoki, opari eta antzekoak ordaintzeko baliatuko dute dirua.

Larunbatean, 11:00etatik aurrera salgai jarriko dituzte sarrerak, Leidor aretoko leihatilan; mozzorro lehiaketako parte hartzaileek, berriz, ez dute sarrearik ordaindu beharko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Arriaran ondoko biribilgunea egitea eskatu dute Batzar Nagusiek

Gipuzkoako Foru Aldundiari Tolosako proiektua egin eta finantzatzeko deia egin diote

Imanol Garcia

Tolosako Arriaran zerbitzugunearen ondoan, iparraldeko N-1eko loturan, biribilgunea egiteko eta finantzatzeko eskaria egin zioten Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari, atzoko osoko bilkuran. Biribilgunearen obra burutzeko proiektu berria egiteko eskatu diote aldundiari, aurrekoan «antzemandako akatsak» zuzentzeko. Aurtengo ekaina baino lehen, Tolosako Udalarekin hitzarmen berri bat sinatzeko ere dei egin diote, eta akordio horretan proiektua finantzatzeko ekonomia-konpromisoa jasotzeko. Azkenik, 2014 urte bukatu baino lehen lanak bukatzeko eskaria egin diote.

Azken onartutako ebazpen proposamena EAJK, PSE-EEk eta Bilduk adostu dute. Alderdi jeltzaleak ohar batean azaldu duenez, «nahiz eta foru aldundiak bi-

ribilgune hori egiteari uko egin zion, besteak beste, ekonomia egoera dela eta, EAJK aldundiaren konpromisoa lortu du lan hori egiteko». Hain justu, Aintzane Oiarbide EAJKo batzarkide taldearen bozeramaileak adierazi duenez, proiektuak zituen arazoak erabili ditu Bilduk egitasmoa «behin eta berriz gelditzeko». Arazoak «aurreko gobernuak konpondu ditu», esan du Oiarbidek.

EAJKo bozeramaileak arazo horien berri eman du: «Arazo nagusia Oria ibaiaren ondoan daude hegala ziren. Horiek izan ziren Uraren Euskal Agentziaren proiektuaren aldatetaren eskaeraren arrazoia. Eskari hori aurreko legealdia amaitu baino lehen adostu zen. Beste bi arazo ura banatzeko hodi bat eta saneamenduko kanalizazio bat ziren».

Oiarbidek gaineratu duenez, «sarrera berri honi esker tolosarrak zein Tolosara sartzen direnek N-1 errepidearekin lotura egokiagoa izango dute». Ildo bereetik, Jokin Azkue Tolosako EAJK zinegotziak bere alderdiaren lana nabarmendu du: «EAJKren lana esker, aldundiak biribilgune hori egitea lortu dugu. Proiektua



Egun Arriaran zerbitzugunearen ondoan dagoen bidegurutzea; biribilgunea horren parean aurreikusten da. I. GARCIA

gure herriaren etorkizunerako ezinbestekoa da».

Tolosako udal gobernuak, bere aldetik, Batzar Nagusiek onartutako ebazpena Tolosarentzat «berri pozgarria» dela azaldu du, eta horren arrazoia zehaztu ditu: «Herriarentzat garrantziko den azpiegitura bat legealdi honetan egin edingo delako eta Tolosako udal plenoak onartutako hitzarmen berri baten eskaerari baieztatu erantzuna eman diolarako».

Bestalde, udal gobernuak azpimarratu duenez, «onartutako hitzarmenak zuzendu egiten dituzte orain arte hitzartuta zegoen proiektuak agertzen zituen akats larriak: ur agentziaren aurkako txostena, ibai ertz batetik pasatzen den hodia kontutan hartu ez izana, edo egituraren diseinuan agertzen zituen arazoak. Behar bada, hauteskunde urgentziek eragindako presen ondorioak guztiak ere, tajuzko tramitazioari begira baino hauteskundera begi-

rako etekin politikoak lortzera bideratuta».

«Gabezi» horiek tarteko, aurreko hitzarmena bertan behera utzi beste erremediorik ez zegoela eta proiektua berridatzi beharra egon dela gaineratu du udal gobernuak, «horrek eragin dituen atzerapen eta gainkostuekin».

Udal gobernuak bere lanak «arduraz» egin dituela esan du eta diputazioari eskatu dio obraren proiektua eta exekuzioa «ardura berberaz» egin ditzala.

Ahozko Lantegia, Leidor aretoko eszenatoki gainera

Tolosako hiru ikastetxeetako DBH mailetak ikasleentzat ekitaldia antolatu dute bihar goizerako

I. Garcia

Ahozkotasuna lantzen ari dira Tolosako hiru ikastetxeetako DBH mailetan, Ahozko Lantegia izeneko proiektu pilotuaren bitartez. Proiektu horren barruan, ekitaldia antolatu dute Leidor aretoan bihar goizerako, maila horietako ikasleei zuzenduta. Ekitaldiaren helburua, proiektuan lantzen ari diren eszenatoki baten gainera eramatea da, eta bide batez, egiten ari diren lanak zertarako den jasotzea. Azken honetarako mezu bat irakurriko

dute maila bakoitzarentzat antolatu diren emanaldietan.

Orain 40 urte baino gazte gehiagok egiten dute egun euskaraz, baina, hala ere, askotan erraz pasatzen dira gaztelaniaz hitz egitera. Hain justu, Leidor aretoan izango diren gazteei, bere eguneroko bizimoduaren euskara erabil dezatela esango diete: «Euskarak ere nahiko gatzeta eta piperra badituenez, bizitzaren alor eta une guztietan hizkuntza egoki erabili behar dugu. Horra hor bada, zuen ahaleginaren bidez, etorkizunera begira egiten ari zareten inbertsio bikaina!».

Mezuaz gain, beste hainbat emankizun izango dituzte, hain justu, ikastetxeetan lantzen ari diren generoen erakusgarri. Hala, Eñaut Elorrieta Ken Zapiti taldeko abeslaria ariko da kantatuan, Aitziber Garmendia aktore-



Eñaut Elorrieta, Leidorren. HITZA

ak bakarriketako egingo ditu, eta Bea Egizabal eta Joxe Mari Karreire ipuin kontalarietako istorioak kontatuko dituzte.

Horiez gain, zenbait ikasle euren egindako olerkiak irakurriko dituzte. Aurkezle lanetan ere ikasleak ariko dira. Guztira lau emanaldi izango dira, maila bakoitzeko bat.

→ Laburrak

Jai batzordearen bilera, gaur, kultur etxean

INAUTERIAK Jai batzordeak bilera egingo du gaur, 19:00etan, kultur etxean. Bileran bi gai jorratuko dituzte. Alde batetik, karrozen norabideen zozketa, eta bestetik, aisialdi taldeak.

Paula Kasaresen hitzaldia Orixe institutuan

EUSKARA Paula Kasares hizkuntzalari, antropologo eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiako lehendakari ohiak hitzaldia emango du, gaur, Tolosako Orixe institutuan. Saioa 18:00etan izango da, institutuko Gorosabel aretoa eta gaia *Euskararen transmisioa* izango da. Solasaldira herritar guztiak daude gonbidatuta.

Jose mari jatetxea

Thauteritan menu bereziak

Etorri!

Lehen menua	Bigarren menua
Angulak Baserriko oiltsakoa edo txuleta Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa	Tolosako bobarrunak Lenguoda "menière" edo baserriko oiltsakoa Pastrea Kafea Crianza rioja edo sagardoa
60€	27€

Erreserbak egiteko deia: 943682942 Oñatek 11,12. Lizartzako ibarretan. Lizartza Oñatek 16-18 21-ara, Tolosako Ibarretan.



Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolako kontzertua emango du bihar Leidorren. HITZA

Kaldereroen Egunaren harira, ijitoek inauterien hurbiltasuna iragarriko dute

Anoetan, Ibarren, Iruran, Zizurkilen eta Tolosan haur eta helduak kalejiran irtengo dira kalera

Asier Imaz

Zartagina eta mailua eskuetan dutela ehunka ijito aterako dira kalera ostiralean eta larunbatean, eskualdeko hainbat herritan. Inauteriak gertu direla iragarriko dute, eta moztarok amaitzen joateko garaia ere iritsi dela. Tolosan elkartuko dira ijito gehien, Kaldereroen Egunean. Hala eta guztiz ere, bidea zabaltzen joateko, Ibarren, Iruran, Anoetan eta Zizurkilen bihar irtengo dira jaiak. Lehen hiru herrietan, Loatzoko musika eskolako laguntza izango dute, eta Zizurkilen, Otaño ikastetxetik abiatuko dira. Tolosan Urdiña-Txikikoak aritu dira urtero bezala Kaldereroen Eguneko kalejira antolatzen; 19:00etatik aurrera izango da jaiak.

↓ Egitaraua

OTSAILAK 10, BIHAR

- **Anoeta.** 18:00etan, plazan elkartuko dira.
- **Ibarra.** 18:00etan plazatik kalejiran irtengo dira.
- **Irura.** 18:00etan kalejira Kulturunetik abiatuta. Ondoren, merienda.
- **Zizurkil.** 15:00etan Otaño ikastetxetik abiatuko dira kalejiran, herrian barrena ibiltzeko.
- **Tolosa.** 20:00etan, Leidor aretoan, Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolaren kontzertua. Emanaldiak bi zati izango ditu, eta batean kaldereroen abestiak joko dituzte eta bestean inauterietakoak. Azken abestia mundu osoan ezaguna den Diana izango da.

OTSAILAK 11, ETZI

- **Tolosa.**
- **11:00.** Erraldoi eta buruhan-diak. Irteera Plaza Zaharretik

egingo dute, ondoren kaleetan barrena ibiltzeko.

- **12:00etan.** Tolosa Kantari kantujiraren hasiera Maria Luisa Agirre doktoarearen plazatxoan. Bien bitartean haurren Txantxo Lehiaketa egongo da Zentro Sozio-Kulturallean.
- **16:00etan.** Aiz Orratz txaranga irtengo da elkartetik.
- **16:30ean.** Haur jaialdia Aiz Orratz elkartek antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdian Txantxo Lehiaketako irabazleen berri emango da.
- **19:00etan.** Urdiña txikik antolatuta, kaldereroen konpartsa Plaza Zaharreaan elkartuko da udaletxetik pregoia irakurtzeko.
- **19:15ean.** Konpartsa kalejiran irtengo da. Ibilbidea hau izango da: Solana kalea, Korreo kalea, Gorriti plaza, Kale Nagusia eta Plaza Zaharra. Ondoren, Alde Zaharretik kalejiran jarraituko dute.
- **23:30ean.** Incansables txaranga kalez kale ibiliko da Ezpeleta elkarrearen babesarekin.

ZUZENKETA: TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK aditzera eman nahi du, hilaren 7an kiroletako 7. orrian aterako 'Epai-leak ere ezin izan dio kendu oraingoan Euskal Herriko txapela Ibarri' izenburuko albisteak idazteko ez zela jarri harremanetan bertan aipatutako eragileekin. Barkamena eskatu nahi die denei, bereziki ahotan hartutako epaileari, sortutako eragozpenengatik.

Udaletxean bidezko merkataritzari buruz ariko dira

'Larria, kutsakorra, mendebaldekoa' antzezlanaren ikusteko aukera egongo da bihar Gurea Antzokian

A. Imaz Amasa-Villabona

Villabonako kultur egitarauaren barruan hitzaldia, antzerkia eta zinea izango dituzte ondorengo egunetan.

Gaur, hilak 9, bidezko merkataritzari buruz ariko dira udaletxeko erabilerari buruzko aretoan. Hitzaldia 19:00etan hasiko da, eta gonbidatu bereziak egongo dira bertan hizlari bezala: Gisela Alvarado eta Liliana Bermeo. Bateginik taldeak ekarriko ditu bi emakumeak Villabonara.

Gisela Alvarado ekoizlea da; Ekuadorreko la Pepa de oro-ren fundatzailea, eta Corprock Kakao Ekoizleen Korporazioko lehendakaria. Liliana Bermeo, aldiz, Ekuadorreko MCCeko Giza Garapenerako arduraduna da. Biek ala biek, euren esperientzia kontatuko dute bidezko merkataritza gaitzat hartuta.

Antzerkia eta zinea

Gurea antzokiak ez du atsedetik hartuko bihartik astelehenera bitarte.

Hilaren 10ean, 22:30ean, Ez dok

hiru Bikoteatro konpainiak *Larria, Kutsakorra, Mendebaldea* ikuskizuna eskainiko du Gurean. Sarrera 8 eurokoa izango da, nahiz eta Gazte Txartelarekin 6 eurotan sartzeko aukera egongo den. Villabonatik azaldu dutenez, helduentzako antzerkia da Jokin Oregik zuzentzen duen komedia hau. Osasun publikoaren eta neozio pribatuaren azterketa bat egiten dute oholtza gainetik, azken urteetako «deialdi apokaliptikoak» aitzakiatzat hartuta: A gripea, hegazti gripea...

Zuzendariaren esanetan, «bel-dur kolektiboa sortzen duten egoera horien aurrean, nolakoak garen eta nola erreakzionatzen dugun aztertzen dugu ikuskizun honetan; begirada kritikoa mantentzearen aldeko aldarri bat ere bada *Larria, Kutsakorra, Mendebaldea* lana».

Antzerkia amaitu ondoren, Gurean zinemak hartuko du protagonismoa, *La dama de hierro* filmaren eskutik. Etzi, 18:30ean eta 22:15ean izango da emanaldia; igandean 17:00etan eta 19:30ean, eta astelehenean 21:30ean. Azken egun hau ikuslearen eguna izango da, eta kasu honetan sarrera 3 eurokoa da, gainontzean 4 eurokoa. Igandean, hilaren 12an, hurrentzako zinema egongo da Gurean aretoan, hau da, *La gran aventura de Winter el delfin* filma egongo da.

Villabona-Aiztondoko udalek eski irteera antolatu dute Luz-era

Izena emateko epea zabalik dago; horretarako guneak Zizurkilen eta Villabonan jarri dituzte

Erredakzioa

Zizurkil

Zizurkilgo Udalak, Villabonakoarekin eta Aiztondokoekin batera, eski irteera antolatu du Luz-Ardinena. Egun pasa herriko eta inguruko gazteentzat da, hain zuzen ere, 1992-99 urte bitartean jaiotakoentzat. *Alpino* eta *snow* modalitateak praktikatzeko aukera izango dute gazteek, eta elurretan gozatzeko ere bai, bide batetik.

Irteera martxoaren 17an izan-

go da, 05:30etan irtenda. Itzulera ordua zehazteko dago oraindik, baina 20:30ak inguru horretan izango litzateke.

Izen emate epea irekita dago jada, eta azken eguna martxoaren 2a izango da. Horretarako aukera Zizurkilen, Aurrera Plazako udal bulegoetan eta Gaztezulon, eta Villabonan, Gazte Informazio bulegoan eta kiroldegian egongo da. Izena ematerakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa, bereziki: nortasun agiriaren fotokopia, dirua edo ordaindu izanaren agiria eta adin txikikoen kasuan gurasoen baimen-orria izango dira.

Udalak diruz lagundutako ekimena izaki, 18 urtez azpikoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta 18tik gorakoek 35 euro.



Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsu, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

Aldaketa sozialaren aldeko deia egin du ezker abertzaleak

Etzi, Hego Euskal Herriko hiriburuetan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko eskatu du

Rebeka Calvo

Tolosaldeko ezker abertzaleak herritar guztiak animatu nahi ditu larunbatean, hilak 11, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan aldaketa sozialerako deitutako manifestazioekin bat egitera. Manifestazioak ezker abertzaleaz gain, Eusko Alkartasuna, Aralar eta Alternatiba alderdiek antolatu dituzte.

Ezker abertzaleak esan duenez, egun pairatzen dugun krisialdi «latzaren» aurrean erantzuna, oraingoan, lau alderdien eskutik emango dute. «Egoera gordin bezain latz honek erantzun sendoa eskatzen du. Herri

honetako eragile sozial, sindikal eta politikoei, bakoitza bere esparruan eta ahal balitz denok batera, martxan dagoen erreforma neoliberalari eta zentralizazio prozesu argiari aurre egin behar ko geniokeela uste dugu», gaineratu dute.

Alternatiba baten eskaintza

Ezker abertzalearen ustez, egoera honek «alternatiba berri baten eskaintza» eskatzen du, eta irtenbide hori gauzatzeko «eragileoi arduraz jokatzeko tokatzen zaigu».

Horiek horrela, alderdi abertzaleak burujabetza politikoa eta ekonomikoa oinarri izango duen eredu berrirantz joan behar dela dio, eta horretarako lau alor aipatu ditu.

Batetik, «herri ikuspegitik gure erakundeak egoerara egokitu behar ditugu», esan du: «Horretarako erakundeak herritarren zerbitzura jarri behar dira eta merkatuak kontrol publikoaren

menpe jarri. Inbertsio publiko eta soziala bultzatu eta enplegu duina zein soziala sortzeko tresnak sortu behar dira».

Era berean, «finantza sistema indartu baino, ekonomia erreala indartu behar da», esan du. «Nekazaritza, arrantza, industria eta zerbitzu emankorrak indartu behar dira. Halaber, urteetako borrokek lorturiko ongizate estatuaren zerbitzu, eskaintza publikoak babestu eta indartu behar dira», azaldu du.

Hirugarren ardatz bezala, ekonomia helburuak «langileria eta, oro har, herritarren interesak izan behar dira», eta ez, «gutxi bazuen onura izan, orain arte bezala». Bukatzeko, guztiari aurre egiteko «herri gisa, munduko gainontzeko estatuak dituzten biartekoen pareko» egon behar dela aipatu du. «Euskal Herriak, euskal esparru sozioekonomiko eta laborala eraiki eta errespetatuarazi behar du. Herri bat garen heinean herri gisa eginaz», esan

du ezker abertzaleak. Alderdiaren ustez, egungo marko juridikoa eta «menpean nahi gaituzten estatuaren erabakiek» kalte ekonomiko eta soziala besterik ez dute sortzen. Eta beraz, «gure borroka ez da identitate eskubide batzuk lortzeko soilik, herritarren beharrei erantzuteko tresnak sortzeko baizik, burujabetza ezinbesteko dugularik. Gure esparru propioa behar dugu eredu aldaketa nahi badugu. Eta hori zinez, posible eta bideragarria da».

«Herri bizi eta aktiboa gara»

Honekin batera, alderdiak herri honekin dituen baliabideak ekarri ditu gogora. «Herri bizi eta aktiboa gara, sindikalgintza indartsuarekin, industri sektore lehiakorarekin, formakuntzarekin, natur baliabide oparoarekin... herri hau burujabetzarako prest dago».

«Guzti hau dela eta, kalean bildu behar gara. *Erantzuna gure esku. Erabakia gure esku* lelopean. Kaleak bete behar ditugu. Gure bizkar, hartzen ari diren neurri guztiei artazia guk sartu behar dizkiegu eta zibilborrestera balitz eten burujabetzaren norabidean», gaineratu du alderdi abertzaleak.

Gutuna

Tolosako OTA



Lehendabizi zoriendu Tolosako Udala eta, batez ere, zoriendu udal honetako TAO zerbitzua, oso zerbitzu arduratsua eta efektiboa dena.

2012ko otsailaren 4ko, larunbateko, kontakizuna da honakoa:

Gaur goizean jaiki eta aspaldiko partez nire autoa hartzea bururatu zait Tolosara txangoa egiteko.

Askok jakingo duzuen moduan denbora pasatu dut nire autoarentzat txoko bat bilatzen aparkatu ahal izateko.

Ondoren horren modan dauden kale bazterreko makina txanponjale horietako batera hurbildu nahiz, «marka izango da, baina gaur ere txanponik ez!». Aurretik ez dut aipatu 09:45ak direla.

Banoa herriko ostalari asper-tu batengana eta lotsaren lotsaz diru xehea eskatu baino nahiago izan dut edateko zer-bait eskatu, 10 euroko billetea emanez ordaintzeko.

Baina gatozen harira; txanponak lortu ondoren autora itzuli naiz 09:58ean, eta hara!! Paptxoa nire kristalean!

Bai irakurle, berriz ere txanpon eske joan behar 10,70 euroko isunari aurre egin ahal izateko.

Beraz, hasieran nioen bezala, Tolosako Udala zoriendu nahi dut, eta, batez ere, udal honetako TAO zerbitzua. Milesker zuen jarraipen zorrotzarenatik.

Ordaintzeko txartela edo beste bideren bat egongo balitz sikiera...

■ Herriarra.

Euskal presoekiko jazarpenarekin amaitzeko eskatu dute

Ibarrako presoen eskubideen aldeko taldeak deituta Poitiers-Vivonneko kartzelara joango dira

R.C.

Euskal presoen eskubideen alde lan egiten duen Ibarrako taldeak Frantziako Poitiers-Vivonneko kartzelara joateko deia egin du. Herritar talde batek antolatu du irteera bertan dauden euskal presoek, artean Ibarrako Maite Aranalderi, elkartasuna azaltzeko,

eta era berean, bizi duten egoera salatuzko. Izan ere, beste hainbat debekurekin batera, bisita bikoitzak egiteko aukera kendu diete, eta beraz, senitarteko eta lagunen bisita denbora murriztu da.

Irteeran parte hartzeko Subegin eman daiteke izena, eta gaur da azken eguna. Irteera berri, bihar izango da, ostirala, 00:00etan. Ibarratik Donostiara joango dira, eta han beste herrietatik joandakoekin elkartzeko deia guztiak batera kartzelara joateko.

Era berean, nahi duenak Poitiers-Vivonneko kartzelako zuzendariari helaraziko dioten gu-

tuna sinatu ahal du Subegin. Eskutitzean lau eskaera egiten dizkiote zuzendariari. Lehenik eta behin, «euskal preso politikoei bisitak dobleak izan daitezela, kontutan hartuta bisitetara joateko haien senideek 1.100 kilometro baino gehiago egin behar dituztela, honek suposatzen dituen gastu eta arrisku guztiak». Bigarrenik, Eneko Zarrabeitia Salterain preso aipatzen dute, eta «euskal preso politikoari ezarritako zigor neurrigabea bertan beharra uzteko» eskatzen dute, «zigor hau bisita batean beste preso baten senideak agurtzeagatik izanik, eta jarrera hori guztiz gizatia-



Maite Aranalde. HITZA

rra dela argi egonda». Azkenik, euskal preso politikoen oinarriko eskubideak eta haien euskal Herriratze eskubidea errespetatzeko eskatzen diote kartzelako zuzendariari.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



ASENTXIO ONDARZABAL



LASKORAIN IKASTOLAKO KIDEEN IZENEAN. Esker onez.

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo adingabeen zentroa zeresana ematen ari da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku baldin badago ere, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariak udalaren iritzia jakin nahi izan du. Gaia gertutik jarraitzen ari da Nerea Lizarraga (Zizurkil, 1975) alkateordea.

Egunkarietan eta Gipuzkoako Foru Aldundian Zizurkilgo adingabeen zentroaz hitz egiten aritu dira azken egunotan. Udal bezala, zein da gaierikiko zuen ikuspuntua?

Kezkarekin jarraitu dugu egoera, azken finean, bizilagun batzuk daude hor. Egia da sufritzen ari direla; bizi kalitatea ez dela izan beharko lukeena. Ondorioz, kezka horrekin gaude. Hala eta guztiz ere, egia hori, ezer gutxi egin genezake guk, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko zentroa baita. Kudeaketa ere berak eramaten du, hau da, zentroaren inguruko erabaki guztiak diputazioak hartzen ditu. Guk udal bezala egin genezakeen bakarra, bizilagunekin egotea da, eta hori egin dugu: hitz egin eta ahal den neurrian saiatu arintzen egoera hori, baina guk ez daukagu askoz gehiago egiterik.

Bizilagunek hamaika salaketa jarri dituzte azken urteetan. Zuek egoera horren jakitun al zineten?

Egoera hori ezagutzen genuen. Bizilagunen dinamika hori da: ezohiko zerbait gertatzen denean automatikoki idatziak helarazten dituzte, bai udalera eta bai diputazioa ere, kontziente izanda udaletxeak ez daukala esku-hartze handiegirik. Logikoa iruditzen zait, azken finean, administrazioa bideratzen dira. Legealdi berria hasi zenetik, hiru edo lau idatzi jaso ditugu guk, eta horren aurrean eurekin elkartzea erabaki genuen, errealitatea zein den gertutik ezagutzeko. Beraien egoera eta beraien kezkek azaldu zizkiguten, eta guk ahal genuen neurrian egoera hori arintzen lagunduko genielako esan genien. Kontuan izan, guretzat errazagoa izan daitekeela diputazioarekin harremanetan jartzea, eta horretarako eskaini ginen.

2007an Tolosan itxi zuten adingabeen zentroa jarri zuten Zizurkil, ezta?

Ez, gauza ez da horrela. Ez zuten Tolosako zentroa itxi eta Zizurkilera ekarri. Zizurkilgo etxe hori etxe partikular bat zen, eta diputazioari adingabeen zentroa jartzeko helburuarekin saldu zitzaion. Tolosan adingabeen zentroaren inguruan liskarra zegoen, eta jendeak hura Zizurkilera ekarriko zutela pentsatu zuten, baten itxierak eta bestearen irekierak denboran bat egin zutelako. Inguruko auzoetako bizilagunen artean kezka sortu zen, eta bilera eta abar egin ziren horren harira.

Nortzuk egin ziren bilera horretan?

Bizilagunekin Gipuzkoako Foru



A. IMAZ

Nerea Lizarraga › Zizurkilgo alkateordea

Zizurkilgo adingabeen zentroak laguntza behar duten nerabeen eta bizilagunen arteko arazoa agerian utzi du; bizilagunek zentroa ireki aurretik ixteko hainbat eskari eginak zituzten.

«Gure esku dagoena egiteko prest gaude»

Aldundiko jendea eta zentroa kudeatu behar zutenak elkartu ziren. Azalpenak eman zizkieten bizilagunei, eta argitu zieten Zizurkil irekiko zuten zentroa ez zela Tolosakoaren berdina. Adingabeen zentroak maila desberdinetan sailkatutik daude, eta Zizurkilgo zentroen artean gatazka maila baxuena zela azaldu zuten.

12-18 urte bitarteko haur eta nerabeak dauden Zizurkilgo adingabeen zentroan, ezta?

Horrela da, eta hasiera batean ez dute laguntza berezirik behar. Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu

behar beraien familietatik ateratu dituzten nerabeak direla. Ondorioz, nerabe horrek badakarki gogorra duen motxila bat bere soinean, baina berez bizi normalizatu egiteko etortzen dira: eskolara joaten dira... Horrek ez du esan nahi denborarekin, adin konplexuak direnez, nerabe horiek garapena bat izaten ez dutenik. Kasu horietan, liskarrak sortzen dituen nerabea beste zentro batera eramaten du diputazioak, horrela baloratzen duen kasuetan.

Orain arazoa gehienbat norena da,

auzo osoarena edo ondoan bizi diren adineko bizilagunena?

Adingabeen zentroa bi biziitako etxebizitza bat da, ondorioz, horma bat partekatzen dute. Gehien sufritzen dutenak horma hormaren aurka daukatenak dira. Adingabeen zentroan zortzi lagunentzat dago lekua, baina bospasei nerabe egoten dira gehienetan. Bost nerabe bizi diren etxebizitza batean normala izaten ohi da zaratak egotea, eta askotan iluntzetan edo gauean. Ez da bateragarria adingabeen eta adineko bizilagunen erritmoa. Hori horrela

gertatzen da. Horri diputazioaren zentroa dela gehitzen baldin badiegu, gauza oraindik eta gehiago korapilatzen da. Arazoa, ordea, hasiera hasieratik dator, eta komunitate guztian. Beti eskatu izan dute zentroa ixteko, ireki aurretik ere horrela eskatzen zuten. Momentu honetan, horma partekatzen duten adineko bizilagun horiei babesa azaltzeko mugitzen ari dira gehienbat.

Nahiz eta udalaren eskumena ez izan, zuen ustez irtenbidea zein izango litzateke?

Udal bezala egia esan behar baldin badugu, nerabe horiek herrian ez dute horrelako liskarrik sortu, orokorrean. Noizbehinka, zerbait gertatu bada, oso kasu isolatu izan da, eta adin horretako edozein nerabek egin zezakeena izan da. Zentroa ixtea edo ez ixtea ez da gure eskumena, eta guda horretan ez gara sartuko, diputazioak hori ez ixteko erabakia hartu baita. Udal bezala beraz, ez dugu zentroa ixtea eskatzen, adingabeen zentroak egungo gizaratean beharrezkoak baitira. Horrekin ez dugu ahaztu nahi bizilagunek bizi duten egoera, aldeantzi, behin eta berriz errepikatu dugu egoera hori hobetu egin behar dela, eta gure esku dagoen guztia egiteko prest gaude. Hori da gure kezka eta helburua, eta bide horretan bizilagunekin elkartu garenean ere gure eskua luzatu diegu.

Zenbat zaintzaile daude bertan?

Zaintzaileak 24 orduz daude bertan. Egunez, hiru edo lau egoten dira, eta gauean, gutxien gutxienez bat egoten da. Horiez gain, laguntzaileak dituzte sukaldarian eta abar.

Begiralekin hitz egin al duzue?

Bai, eta beraiek ere egoeraz jabetzen dira; uste dut bizilagunen egoeraz denok jabetzen garela, egoera zail bat bizitzen ari baitira. Zaratengatik, diputazioak horma hori isolatu zuten bere garaian, baina dirudinez ez nahikoa, oraindik orain zaratak entzuten baitira. Hala eta guztiz ere, begiraleek ez dute esaten egoerarekin ezin dutela, eskuetatik ihes egin ari zaiela. Tarteka nerabe batek arazo bat garatzen du, eta krisialdia edukitzen du. Egoera konplexuak izaten dira. Horrelako gauzak gertatzean, begiraleak seguituan sartzen dira, eta ebaluaketa berri bat behar dutela uste dutenean, bide hori hartzen dute. Krisialdiak ohiko bilakatzen baldin badira, nerabe zentroz aldatzeko erabakia hartzen dute orokorrean, egin zaion ebaluaketa berrian beste era bateko laguntza behar duela ikusten bada.

Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesu hori azkartu egingo duela esan du.

Lehen ere azkartu zuten, bi hila-betetara jaitsiaz. Orain, are eta gehiago azkartuko dutela esan dute. Nerabe bat ez dagokion zentroa dagokion zentroa azkar eramatean, denentzat onura izango da.

Inauteriak izango dituzte Berastegin eta Lizartzan, asteburu honetan

Lizartzan jarraipena emango diote pasa den asteburuari, eta Berastegin mozorroen festa berreskuratu dute

Iñigo Terradillos

Leitzakoak izan ziren goiztiarrena, eta euren lekukoa aresoarrek hartu zuten. Orain, Berastegi eta Lizartzaren txanda heldu da. Tolosan inauteriak gertu dira iragaritzen duen Kaldereroen Eguna ospatuko duten bitartean, berastegiarrak eta lizartzarrak mozorroen festan murgilduko dira asteburuan.

Lizartzan, dena den, iragan asteburuan ere izan zen zer ospatua. Izan ere, inauterien hasieraz ohartarazten duen diana etzi entzungo den arren, pasa den larunbatean urteroko antzerkiak eta Otsolar dantza taldearen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Hain zuten ere, Lizartzan jazotako gertakizun bat irudikatu nahi izaten dute antzerkiaren bidez. Txekorra apustuan jarri zuten karta jokoaren bidez, eta eztabaida txiki bat izan ostean, epaileak herritar guztien artean txekor jatea egitea erabaki zuten arazoa konpontze aldera. Is-

torio horixe antzezten dute herritarrek, eta horren ondotik, etorri ohi da herriko dantzarien saioa.

Bada, asteburu honetan, festa-rekin jarraituz, puske-biltzeak, txantxoak, gurdiak, Lizartzako inaute dantzak... eta *ijitoa* izango dira, besteen artean.

Berastegin, inauterien itzulera

Aldin kultur elkarteak 2004an berreskuratu zuten inauteriak Berastegin ospatzeko ohitura. Lau urtetan egin zuten mozorroen jai, baina «jendearen erantzuna gutxitzen joan zenez», azken hiru urtetan, ez dute inauteririk izan. Aurten, ordea, Urepele gazte elkarteak eta udalak elkarlanean antolatuta, festa izango da berriro ere herrian. «Eratu berri den Urepele elkarteko batzorde berriak eta bertako kultur taldeak udaletxean proposamena egin zuten, eta horrela erabaki zen berriro ere antolatzea», azaldu du Amaia Azkue zinegotziak.

Bihar eta etzi ospatuko dituzte inauteriak, baina etzikoa izango da egun handia. Herri afaria eta ondorengo festa dira ekitaldi nagusiak. Badirudi herritarrek festarako irrikaz daudela, afarian, esaterako, 114 lagun izango baitira. Antolatzaileek antolakuntzan herritarrek eskaintako laguntza eskertu nahi izan dute.



Lizartzako dantzarien saioaz gozatu ahal izan zuten iragan larunbatean herritarrek. I. TERRADILLOS

↓ Lizartza

OTSAILAK 10, OSTIRALA

■ **14:15.** Eskolak antolatuta mozorro festa.
■ **Ondoren.** Kalejira.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

■ **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. Diana abestuz, inauteriei hasiera.
■ **07:30.** Puske-biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospelletik.
■ **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosatzeko.
■ **12:00.** Mozorro, gurdi eta txar-rangen irteera Errota ataritik.
■ **13:30.** Kalejira, Arrateko zubitik irtenda.
■ **Ondoren.** Bazkaria frontoian.
■ **18:00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekutik kale-

jiran plazara. Bertan hainbat sargardotegiko sagardoak eta Lizartzako talogileek egindako taloak jateko aukera.

OTSAILAK 12, IGANDEA

■ **11:00.** Agintari eta dantzariak meza nagusira txistulariek eskaintako agintari doinuaz lagundurik.
■ **Ondoren.** Hamaiketakoia plazan.
■ **12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera.
■ **13:00.** Lizartzako inaute dantzak plazan.
■ **14:00.** Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan.
■ **Ondoren.** Txaranga, jokua, zozketa, sariak...
■ **20:30.** Plazan *ijitoa* errez emango zaie amaiera inauteriei.

↓ Berastegi

OTSAILAK 10, OSTIRALA

■ **14:30-16:00.** Gaztetxoak irtengo dira Berastegiko kaleetan barrena; mozorroak eta ezau-garri bitxiak gainean jantzirik eta soinu eta musikaz lagundurik, herriko bazterrak alaituko dituzte.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

■ **17:00.** Herriko dantzari txikien emanaldia izango da ikusgai plazan.
■ **Ondoren.** Txokolate jatea.
■ **19:00.** Triki-poteoa izango da herriko trikitalarien laguntzarekin.
■ **21:00.** Herri afaria egingo da aparkaleku azpiko lokalean.
■ **19:00.** Triki-poteoa izango da herriko trikitalarien laguntzarekin.
■ **21:00.** Herri afaria egingo da aparkaleku azpiko lokalean. Afariaren ostean dantza eta festa izango da inauteriei buka- era emateko.

«Udal gehienetan» egin dute bat gaurko lanuztearekin

Euskal gehiengo sindikalak sektore publikoko langileak lau orduko lanuztera deitu ditu

I. Terradillos

ELA, LAB, eta STEE/EILAS sindikatuek sektore publikoko 100.000 langile lau orduko lanuztera deitu dituzte gaurko, Euskal Autonomia Erkidegoan, sektore publikoan egiten ari diren murrizketen aurka egiteko. Bada, eskualdean ere eragina izango du deialdiak, «udal gehienetan» edota hainbat ikastetxetan bat egin baitute deialdiarekin, sindikatuetatik azaldu dutenez.

Lau orduko lanuztea 11:00etatik 18:00etara bitarteko ordute-

gian egingo da, sektore bakoitzean lan txanden arabera. Halaber, lanuztearekin batera, manifestazioak ere deituta daude EAEko hiruriburuetan. Donostiaren kasuan, 12:30ean abiatuko da Boulevardetik, eta bertaratzeko deia egin diete sindikatuek eskualdeko langileei.

Tolosaldeko udal ugaritan egingo dute lanuztea, eta baita ikastetxeetan ere. Tolosako Samaniego ikastetxearen kasuan, irakasleen %40k egin du bat deialdiarekin, beraz, bertako ordezkariak geletan ezingo dela ohiko funtzionamendua bermatu adierazi dute. Hori bai, Haur Txokoa, garraio zerbitzua, Lagumbusa eta jangelak ohikotasunez jarraituko dira. Osasun zentroen kasuan, ez dute bozketa orokorrik egin, eta norbere esku dago, beraz, lanuztearekin bat egitea.



Samaniego ikastetxean zintzilikatu duten kartela. I. GARCIA

Mariano Raxoiren «abendua-ren 31ko dekretazoaren» eta Patxi Lopez Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariaren «urtarrilaren 10eko dekretazoaren» ondorioz «egongo diren murrizketen-

gatik» egin dute lanuzte deialdia sindikatuek. Soldatak izoztea, pensio fondoetara ekarpena, errelebo kontratua eta jubilazio primak bertan behera gertatzea bajak bere osotasunean ez kon-

↓ Datuak

LANUZTEA EGINGO DUTEN ZENBAIT ERAKUNDE

- Tolosako Udala.
- Villabonako Jesusen Bihotza ikastola.
- Irurako ikastola.
- Elduango Udala.
- Ibarako Udala.
- Anoetako ikastola.
- Zizurkilgo Udala.

pentsatzea, ordezkapenak ez egitea, enplegu berriak sortzeko aukerak mugatu, lanaldia luzatzea, 65 urtetik gorakoek ezin lanean jarraitzea eta adinagatiko lanaldi murrizketa bertan behera dira murrizketen ondorioetako batzuk, sindikatuek adierazitakoan arabera.



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	6º
HOTZENA	1º

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosaldea



ELURRA EGIN BADU ERE, ARAZORIK EZ

Eguraldi iragarpenek aurreratu bezala, atzo elurra egin zuen berriz ere, Tolosaldean eta Leitzaldean, batez ere, goizean egin zuen, irudian ikusi daitekeen bezala, eta arratsalderako ia guztiz atertu zuen. Goizean goiz hasi zen elurra egiten, baina tarteka bakarrik eta ez zuen aparteko eragozpenik sortu errepideetan, ez nagusietan, eta

ezta bigarren mailakoetan ere. Tenperaturak, hala ere, nabarmen egin du behera azken egunetan, eta goizetan izotza izan da eragozpen nagusia errepideetan, nahiz eta, aipatu bezala, eragozpen larririk ez sortu. Adituek argitu dutenez, datozen egunetan tenperaturak gora egingo du. R. CALVO

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Galtzaundi irakurle taldeak beste bilera bat egingo du gaur, 19:30ean kultur etxean. Oraingoan Iratxe Esnaolaren *Galerna* liburua aztertuko dute.
- **Tolosa.** Jai batzordearen bilera gaur, 19:00etan kultur etxean. Bertan inauterietako karrozen norabideen zozketa egingo dute eta aisialdi taldeez hitz egingo dute.
- **Tolosa.** Tolosa Kantariko ki-deek entsegua egingo dute gaur, 20:00etan musika eskolan. Kantu Jira otsailleko

- azken larunbatean, hilak 25, izango da, eta 12:00etan hasiko dira Tontokalen bildu eta gero.
- **Tolosa.** Paula Kasares hizkuntzalari, antropologo eta Behatokitiko lehendakari ohiak hitzaldia emango du gaur, Orixe institutuan, 18:00etatik aurrera. Institutuko Gorosabel aretoan ariko dira euskararen transmisioaz hitz egiten.
- **Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiak euskara ikasteko matrikula epea ireki du. Hilaren 15ra bitartegongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara, eta

- 16:00etatik 19:00etara. Matrikula euskaltegian bertan egin behar da, helbide honetan: Gorosabelkalea 34 B-3. solairuan. Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietara.
- **Tolosa.** Tolosaldean ikastn-ek spartphone-ak industrian nahiz marketing-ean erabiltzeko ikastaroa antolatu du. Zentroak argitu duenez, azken lekuak geratzen dira libre. Izena eman nahi duenak www.ikastn.com webgunean egin dezake.

ZINEMA

- **Tolosa.** *Tras las Luces* zine-forumean gaur, 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** 2011ko jaietako argazkiak biltzen dituen erakusketa ikusi daiteke kultur etxean martxoaren 2a arte. Argazkiren baten kopia nahi duenak kultur etxeko harreran egin behar du eskaera, eta kopia bakoitzeko 0,50 euro ordaindu behar da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



Inauterietako Argazki lehiaketa



- Saria:

Bizkaiko Ajangiz herrian dagoen **Astobietan nekazal turismoan**

bi pertsonentzako gau bateko egonaldia eta gosaria.

• Argazkiak nora eta noiz bidali:

thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 9a bitarte

Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko bereizmena izan behar dute.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosa.hitza.info webgunean!